

Jaun Kalonjea, .

Bazinaki nola khausitu dautazun, azken "GURE HERRIA"an

Hiriart-Urruty aphezaz, Juanes-Ederraeneko sem^a zenaz, athera daukuztuzun chehetasun eta ichtorio pullitekin!... Bekhatu ziren galzterat edo ahanzterat utz-teko!... Biba, zu!

Bai, segur khausitu, eni bezala bertze askori ere! Eni, Hazketar eta Juanes-Ederraeneko auzo nizalakotz?.. Berdin ba; eta zertako ez dut aithortuko¹ ene urguluak phereka gocho bat hartu duela zu irakurtzean (hazketarrak dio leitzean!)... Aphez egiterat abiatu nintzalarik, Juanes-Ederraeneko etchek'anderiak (zenak), Hiriart-Urruty zenaren koinatak, eskaini zaundan, galdegin khasik, Kalonje zenaren liburu, paper eta zeren miatzerat jua nindadien, eta enetako on zirela idurituko zaindan guziak ereman nintzan²... Gaizo ni! Jakiterat! (Hazketarrak hola dio: "jakin banu" erraiteko orde).. Bai jakiterat, zer ez nuen hatchemanen eta altchatuko kalonje zenaren liburuteiko meta eta berduratan!... Nik ez hartzearekin, erre zuzketen denak denborarekin!...

Beharrik bazirezte, zu eta zu iduriko miatzale, eta memoria oneko zaintzale horietarik!

Hiriart-Urruty zenaz, eta haren denboretako zerez jali daukutzunek, zuhaurek uste baino ere gehiago balio dute! Berriz ere biba zu, eta milesker!! Haren athermaldi eta kontseiluak, zuri esker, zuk erdara garbia³ beztiturik, altchatuak izanen dira, denak, eta hau bereziki: "Ecrivons en pur basque... Beaucoup, avec des mots basques très très purs, nous offrent d'atroces salmigondis étrangers, parce qu'ils calquent leur syntaxe sur celle du français ou de l'espagnol, sans même s'en apercevoir!" Zer erran othe lezake oraiko zonbeit "eusker-izkiriant handien balentriez?... Heien "euskerak" ez du egiazko eskuararen itchurarik (lehen ch, orai x!), otso-phutzak, ondo beltcharen eiterik baino gehiago!

Bertsulari (orai pertsulari) zaharrak⁴ ziona:

Haltzak ez dik ezkurrik...

..... Othiak chichtak baitik

Ez hargatik

Arrosarik...

..... Musika guti juaretarik !...

Ez nintzan horren erraiteko hasia.. Bainan ba zuri bihotzaren zolatik milesker erraiteko! Hea baa, "GURE HERRIA"-k noiz ekharriko daukun bertze holako irakur-gai bat! Zure beharra badugu oraino, azkar zite, zalhu-zalhua lanari lotzeko!

Ez adiorik, eta errspeturekin agur!

Mailliquet

Sinaduna hortatik amaitzen ahal dugu, zer lane beharko ginen erku izkiriata banautu - (Buenos legaiy mañhu ene eskua!)